

Animalien Ongizaterako Errege Dekretu Berria

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak Errege Dekretu berria argitaratu du indarrean zeuden arauetan zenbait aldaketa egiteko: tresnak sortu ditu baserrietako animalien ongizatea hobetzeko, bai eta agintari eskudunei kontrol ofizialak egiten laguntzeko ere.

Oro har, [martxoaren 7ko 159/2023 Errege Dekretuan \(Animalien ongizatearen esparruan kontrol ofizialak egiteko Europako Batzordearen araudia Espainian aplikatzeko xedapenak ezartzeari, eta zenbait errege dekretu aldatzeari buruzkoa\)](#) **baserriko animalien babesari, ustiategietan larrialdiko sakrifizioak egiteari eta elikakateari buruzko informazioari** buruzko zenbait arau aldatzen dira. Arauak balio berriak ezarri ditu, hala nola, animalien gehieneko dentsitatea, eta elikadura, ur, janontzi eta ingurumeneko baldintzei buruzko betebeharrak.

Txerrien ekoizpenari dagokionez, txerriak babesteko gutxieneko arauak aldatu dira. Horrez gain, manipulatu daitezkeen animalientzako materiala ere arautu da, txerriei buztana mozteko praktika ahalik eta gehien murrizteko.

Animalien ongizaterako plan bat izateko beharra zabaldu egin da (dagoeneko txerri- eta hegazti-hazkuntzako baserrietan indarrean dago). Plana **ustiategietako albaitariak** egin beharko dute eta tamaina zehatz bateko ustiategietan aplikatuko da; baserriaren arabera egokituko da. Baserrietako titularrek **4 urte** izango dituzte plan hori sortzeko.

Animalien ongizaterako eta babeserako koordinazio-mahaia sortuko da, eta **abeltzaintzaren eta akuikulturaren esparruko eta erreferentziatzeko zentro nazionala** sortu behar dela xedatu da. Lan hori egiteko, eta bi urteko eperako, **Kataluniako Nekazaritzako Elikagaien Ikerketa eta Teknologia Institutua (IRTA)** izendatu da, **Bartzelonako Unibertsitate Autonomoarekin** partzuergoan.

Arau berria baserrietako baldintzak eta animalien erabilera hobetzeko argitaratu dira; horregatik, hain zuzen ere, egungo ezagutza zientifikora egokitutako baldintza zehatzagoak ezarri dira. Baserriek bi urte izango dituzte beharrezko egokitzapenak egiteko.

Hegazti-gripearen eta beste gaixotasun larri batzuen aurkako txertaketari buruzko araudi berria

Europako Batzordeak (EB) arau berriak iragarri ditu mundu-mailan inpaktu handiena duten animalien gaixotasunen aurkako animalien txertaketa harmonizatzeke, EBn orain arte behatutako hegazti-gripearen (HGOP) epidemia handienari aurre egiteko ahaleginen barruan.

Europako Batzordea Batasunaren [2018/1882\(EB\) Betearazpen Erregelamenduan](#) zerrendatutako A kategoriako gaixotasunen aurkako animalien txertaketari buruzko arauak harmonizatzen ari da; zehazki, estatu kideek gaixotasun horiek prebenitu eta kontrolatzeko albaitaritzako medikamentuak erabiltzeko arauak.

Arau horiek A kategoriako gaixotasunak eraginkortasunez prebenitzea, agerraldi bat gertatuz gero berehala errotik kentzea eta albaitaritzako medikamentuen erabilerak gaixotasun horiek hedatzeko arriskua eragitea zaindu behar dute.

HGOPren testuinguruan, txertaketarako arau espezifikoak prebentziozkoak izango dira, edo agerraldi bat kontrolatzekoak; hala, txertatutako animaliak eta horien produktuak lekualdatzeko baldintzak ezarriko dituzte.

Urtarrilaren 20an iragarritako arau berriak EBn orain arte behatutako hegaztien HGOPren epidemia handiena etetea izango du xede, eta martxoaren 12an jarriko da indarrean.

Informazio gehiago hemen:

[Hegaztien ongizateari buruzko txosten zientifiko berriak](#)

Duela gutxi EFSAk baserrietako gizentzeko oilaskoen eta oilo erruleen ongizateari buruzko bi txosten zientifiko argitaratu ditu. Bertan, hainbat gairi buruzko aholkularitza eskaini dute: espazioa eta egiturak, animalien dentsitatea, argiztapena, hautsa, zarata eta hondakinak.

Aipatutako bi irizpen zientifiko horietan ekoizpen ziklo osoa eta arriskuak kontuan hartuz EBn hegaztiak hazteko sistemak ebaluatzen dira, bai eta hegaztien ongizatean arrisku horiek dituzten ondorioak ere.

Hegaztien **ongizaterako ondorioak identifikatu** ziren, eta, nabarmenen artean, honako hauek azpimarratu behar ditugu: hezurretako eta ehun biguinetako lesioak; zauriak luma, erpe eta mokoan; taldeko estresa; mugimendu faltaren ondorioz portaera eta jarrera naturalak izateko ezintasuna (esplorazioa, konforta eta isolamendua), eta, hortaz, atsedenerako arazoak.

Baserrietako gizentzeko oilaskoen eta oilo erruleen ongizatea hobetzearren, EFSako zientzialariek honako **gomendio hauek** eman dituzte:

- **Kaiolen** erabilera **saihestea**.
- **Luma, erpe eta moko ez moztea, alferrikako mina sortzen baitu.**
- Animalien **dentsitatea murriztea** ohiko portaera ahalbidetzeko.
- Honako **egitura hauek izatea**:
 - **Altxatutako plataformak**; aldibereko atsedena ahalbidetzeko eta harrapakaritza saihesteko, ihes egiteko aukera baitute.
 - **Estalitako terrazak**; esplorazioa, elikagaiak bilatzea eta hauts-bainuak ahalbidetzeko.
- **Xehatu** daitekeen **ohea**, konforta, elikagaiak bilatzea eta esplorazio-portaera hobetuko duten

elementuekin.

Dokumentu horiek "Baserritik mahaira" Estrategiaren esparruan sortu eta Batzordeak animalien ongizatearen esparruan egindako legeen berrikuspenaren parte dira; halaber, herritarrek abiarazitako [End the age cage](#) kanpainaren babesa jaso dute. Batzordearen berrikuspen horretatik abiatuta 2023ko bigarren seihilekoan lege-proposamena abiaraztea espero da.

Behi-ustiategien ordenazio berriari buruzko informazio-gida

18 fitxa daude gidan, eta bertan ekoizpen-sistema, ustiategi-mota eta ekoizpen-gaitasun desberdinentzako baldintzak jasotzen dira.

MAPAk gida bat argitaratu berri du [abendua 27ko 1053/2022 Errege Dekretu bidez behi-ustiategiak arautzen dituen araudi berria](#) errazago ulertzeko, ekoizpen-eredu desberdinei eta ekoizpen-orientazioei dagokienez.

Abeltzaintzako profesionalei eta albaitariei zuzendutako gida horretan zehazten da arau berriak nola eragiten duen ustiategi mota bakoitzean eta berariazko zer baldintza dauden dagoeneko dauden ustiategientzat nahiz duela gutxi sortu direnentzat.

Gidak **bi atal handi ditu: dagoeneko dauden ustiategiak eta ez daudenak**. Bloke horiek **18 informazio-fitxetan banatuta daude**, ekoizpen-sistemaren, ustiategi-motaren eta ustiategien ekoizpen-gaitasunaren arabera; hautatutako kasu partikularrean eragina duen oro jasota dago fitxa bakoitzean, baita **aipatutako araudia betetzeko** kontuan izan beharreko guztia ere, **testu osoa irakurri beharrik gabe**.

Euskadiko abeltzaintza-sektoreari zuzendutako Ardi- eta ahuntz-baztangari buruzko informazioa

Andaluzian eta Gaztela-Mantxan Ardi- eta ahuntz-baztanga fokua agertu berri direnez (1968. urteaz geroztik Espainian desagerrarazitako gaixotasuna), EAeko agintaritzak eskudunek informazio-triptiko bat egin dute, Euskadiko abeltzaintza-sektoreari gaixotasun hori agertu dela jakinarazteko, erne egon dadin eta gaixotasunarekin bateragarria den edozein zeinu kliniko edo sintomatologia zaindu ahal dezan, balizko foku bat modu goiztiarrean detektatu ahal izateko.

Gaixotasun horri aurre egiteko neurri nagusia abeltzaintza-ustategietan ez sartzea da. Hori dela eta, ezinbestekoa da biosegurtasun-baldintza egokiak mantentzea ardi- eta ahuntz-ekoizpenarekin lotutako jarduera guztietan, bai eta abeltzaintzako zaintza-sistemen funtzionamendu egokia bermatzea ere.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hiru foru-aldundiek, Neikerren eta ELIKAREN laguntzarekin, informazio-triptiko bat prestatu dute abeltzaintza-sektorea gaixotasun horren inguruan jakinarazteko eta sentsibilizatzeko, bai eta transmititzeko bide nagusiak, ardietan eta ahuntzetan eragiten dituen sintomak eta egin behar den eguneroko zaintza, eta biosegurtasun- eta mugimenduak kontrolatzeko -neurriak ere, gaixotasun hori euskal etxaldeen sar ez dadin. Era berean, liburuxkan gaixotasunaren edozein susmo berehala jakinarazteko telefono-zenbakiak daude.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak (MAPA) ohar informatiboa argitaratu du AABren azken agerraldi baieztatuari (Gaztela-Mantxan) eta erkidego horretan hartutako neurriei buruz.

AAB 2022/09/19an [Espainian berragertu zen](#) (Granadan), Espainian 1968tik desagerrarazi zen gaixotasuna izan arren. [Lehenengo foku hori berretsi ostean](#), beste foku batzuk detektatu dira Gaztela-Mantxan. Estatuan, berriz, 26 foku detektatu dira guztira (12 Granadan, 1 Almerian, 12 Cuencan eta 1 Ciudad Realen), Albaitaritza Zerbitzu Ofizialen zaintza indartuari esker; izan ere, erregelamenduetan jasotako kontrol-neurriak berehala hartu zituzten.

Joan den 2023/02/08an, AAB lehenengo aldiz baieztatu zen Ciudad Realen, 8.100 ardiko ustategi batean. Egoera konpontzeko, berehala hartu dira bai legez ezarritako kontrol-neurriak, bai birusaren kontrola indartzeko neurri gehigarriak, oso kutsakorra delako. Neurri berri bat hartu da; izan ere, **eremu mugatu gehigarria Gaztela-Mantxako lurralde osora zabaldu da, Guadalajara probintziara izan ezik**. Eremu horretan, honako muga hauek ezarriko dira:

- Debekatuta daude mugimenduak, hiltzeko prozesukoak izan ezik (mugimendu guztiak gizendegitik hiltegia egingo dira zuzenean, ikuskapen klinikoak egin ondoren).
- Garbiketa- eta desinfekzio-neurriak indartu dira hustutako ustategietan.
- Zaintza epidemiologikoa indartuko da: ikuskapena egitea eta laginak hartzea (listu-isipuek) eragindako ustategitik 20 kilometroko erradioan dauden ustategietan edo fokuekin lotura epidemiologikoa dutenetan.
- Hiltegiatan hil aurreko eta osteko ikuskapena indartu da.
- Animalien kontzentrazio-zentroak eta animalien tratulariak ofizioz birkalifikatuko dira, eta REGAn gizendegi izendapena jasoko dute.

Nabarmendu behar **da AAB ez dela zoonosia eta haragiaren eta esnearen kontsumoak** (horiek kutsatuta baleude ere) **ez duelako inolako arriskurik** ekartzen pertsonentzat.

Osasun-agintariek gogorarazi dute ezinbestekoa dela biosegurtasun-neurriak aplikatzea ardi- eta ahuntz-ustategietan, bai eta animalien garraioan ere. Horrez gain, agintari eskudunei edozein susmoren berri eman behar zaie.

Gaixotasunari buruzko informazio gehiago esteka honetan:

EFSaren txostena hegazti basatietan PHHG birusa zaintzeaz

EFSAk txosten bat argitaratu du European hegazti basatietan patogenotasun handiko hegazti gripearean (PHHG) zaintza aktiboa egitearen potentziala laburtuz. Alerta goiztiarreko sistema bat egitea proposatzen du txostenak, zaintza planean oinarritutako dena. Plana birus honen egoera epidemiologiko aldakorrera egokitzeko bezain malgua izan behar du; hala eginez gero, Europar Batasun osorako onura epidemiologiko nabarmena izango luke.

Ukrainan eta Georgian egin den landa-lanean **datu birologikoak eta ornitologikoak** aztertu dira eta argi geratu da PHHG azkar detektatzeko eta identifikatzeko laginketa-ahalmena eta logistika garatu daitezkeela.

EBn hegazti basatiak zaintzeko sare bat eraikitzea gomendatzen du txostenak, laginketa-nodoak hautatzeko tokiko aurrekari ornitologiko eta birologikoen datuak kontuan izanda, baina aldi berean egokitzeko malgutasunarekin, laginketak egin ahal izateko materialetara egokitzeko (hegazti basatiak, ehizako urmaelak, ingurumen-laginak, etab.), birusaren aldaketa epidemiologikoetara, laginketako ostalarien aldaketetara eta laginketak egiten diren urte-sasoiara egokitzeko.

Gainera, **birus enzootikoak zirkulazioan diren garaian** doitu egin behar da zaintza-sistema infekzio-boladak monitorizatzeko, hegazti migratzaileen mugimenduen arabera jarduerak gora egingo duela aurreikusten denean, birusari buruzko ohartarazpenak eman ahal izateko.

Amaitzeko, txostenak **zenbait eskualde proposatzen ditu, zaintza-sare hau diseinatzerakoan nahitaez kontuan izan** behar direnak.

Behi-ustiategiak antolatzeari buruzko arautegi berria

MAPAk duela gutxi argitaratu du abenduaren 27ko 1053/2022 Errege Dekretua, behi-haztegiak antolatzeko oinarritzko arauak ezartzen dituena.

Arautegi berria **behi-ustiategi guztiei** aplikatuko zaie, eta behi-azienden ustiategien **antolamendu zooteknikoa eta sanitarioa egiteko oinarritzko arauak** jasotzen ditu, honako hauei dagokienez:

- **Gehieneko ekoizpen-ahalmena**, azienda motaren arabera.

- **Baldintza minimoak**, hauek dagokienez:
 - Azpiegitura, ekipamendua eta maneiua.
 - Kokapena, eta instalatu berri diren ustiategien osasun-bereizketa.
 - Biosegurtasuna, animalien ongizatea, higie- eta osasun-baldintzak, SIGEren bidez (Behi Ustiategiak Kudeatzeko Sistema Integrala).
- Simaurrak kudeatzeko eta ustiategiko isuriak murrizteko ingurumen-baldintzak.
- Ustiategietako titularren **erantzukizunak eta betebeharrak**, prestakuntzari, biosegurtasunari, higienari, osasunari eta animalien ongizateari dagokienez.

Errege Dekretua **joan den abenduaren 30ean sartu zen indarrean, nahiz eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean jarriko diren baldintza batzuk** dauden, hala nola prestakuntzaren arloko betekizunak. Era berean, martxan dauden ustiategien kasuan, biosegurtasunaren, higiearen, azpiegituren, ekipamenduaren, maneiaren eta higie- eta osasun-baldintzen (SIGE barne) arloko betekizunak 2026ko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean; animalien ongizateari buruzko baldintzak, berriz, 2025eko urtarriletik aurrera jarriko dira indarrean.

Arautegi honen asmoa da ekoizpen-sistemaren eta tamainaren arabera ustiategiek bete beharreko betekizunen artean dauden aldeak jasotzea, haragiaren eta esnearen ekoizpenari dagozkion baldintzatzaileak kontuan hartuta, noski, eta alde batera utzi gabe neurri txikiko baserrien berezitasunak.

Mingain Urdinik gabeko Euskadi

MAPAk duela gutxi ebazpen bat argitaratu du, APA/1251/20201 Agindua aldatzen duena eta EAE mihi urdinik gabeko eremu gisa kalifikatzen duena.

Hori guztia, **EAE**n eta aipatutako arauaren I. eranskineko C zatian zerrendatuta zeuden beste eskualde batzuetan «**mingain urdinaren birusagatiko gaixotasunetik aske**» **kalifikazioa onartzeko baldintzak betetzen direla** frogatzen duen informazio-batzordeari aurkeztu ondoren. Batzordearen ebaluazioaren ondoren, egiaztatu da eskaera horrek betetzen dituela 2020/689 (EB) Erregelamendu Delegatuaren 4. kapituluko II. zatian kalifikazio berria emateko ezarritako irizpideak, eta **Euskadi II. eranskinaren barruan sartzen da, LA birusaren 1. eta 4. serotipoen aurkako borondatezko txertaketa-eremu gisa.**

Mingain urdinari buruzko informazio gehiago esteka honetan:

Abeltzaintzan antibiotikoak erabiltzeari buruzko Errege Dekretu berria

MAPAk duela gutxi argitaratu du abeltzaintza-ustiategi guztietan (norberaren

kontsumorako ustiattegietan izan ezik) aplikatzekoa den antibiotikoen erabilera jasangarria ahalbidetzeko neurriak ezartzen dituen araua.

2011z geroztik, mikrobioen aurkako erresistentziari (RAM) buruzkoa ekintza-planak daude Europa mailan, EBko estatu kide gehienetan; estatu mailan, berriz, [PRAN plana eta haren Reduce programa daude](#) 2014az geroztik.

Albaitaritzako sendagaiei buruzko 2019/6 (EB) Erregelamenduak azpimarratu egiten du mikrobioen aurkako erresistentziak **osasun-arazo gero eta larriagoak direla Batasunean eta munduan, eta beharrezkoa dela erresistentziak sortzeko arriskua murriztea**. Bestalde, EEK "baserritik mahaira" Estrategiaren Komunikazioa argitaratu zuen; horren arabera, **helburua da 2030erako antimikrobianoen salmenta % 50 murriztea**.

Lege berri horren bidez, MAPAk metodo bat ezartzen du **espezie bakoitzarentzako antibiotikoen ohiko eta hiruhilekoko erabilera kalkulatzeko eta ustiattegien araberako sailkapen zooteknikoa egiteko**. Horiek hiruhilekoko bakoitzaren 1ean eguneratuko dira automatikoki PRESVETen eta **erreferentziazko adierazleekin alderatu ahal izango dira**. Adierazle horien BOEn argitaratuko dira, beranduenez, urte bakoitzeko ekainaren 1ean.

Autonomia-erkidegoek ustiattegietako titularren esku jarri ahal izango dituzte neurriak, PRESVETen, titularrek beren ustiategia zein egoeratan dagoen jakin dezaten, erabilerari dagokionez, eta, beharrezkoa bada, neurri zuzentzaileak ezar ditzaten.

Errege-dekretu hau 2023ko urtarrilaren 2an jarriko da indarrean, eta ustiategiaren osasun-plan integralari buruzko araudia indarrean jartzen denetik aurrera aplikatuko da.

Informazio gehiago esteka honetan:

[Hegazti-gripea: prebentziorako neurri berriak Euskadin](#)

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko abenduaren 5eko AGINDUAREN bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan hegazti-gripearen aurka hartu beharreko prebentzio-neurriak ezartzen dira.

Aurten EAE osoan zehar **hegazti basatietan H5N1 PHHG 22 foku jakinarazi dira**; hortaz, Euskadin aurten izandako intzidentzia kontuan hartuta, eta Euskadiko eskortako hegaztien ustiattegietan gaixotasun horren kasuak ekiditeko, **hegazti-sektorea birusetik babesteko prebentzio-neurri batzuk aktibatu behar dira**.

Neurriak **biosegurtasuna, zaintza aktiboa eta pasiboa eta erregistro eta erroldak indartzera bideratuta daude**. Agindu horren bidez, honako hauek **debekatu dira**:

- **Anseriformes eta Charadriiformes** aginduko hegaztiak **amu gisa** erabiltzea.
- Eskortako hegaztiak **aire zabalean elikatzea**.
- Hegazti basatiek sarbidea duten **ur-andeletatik** eskortako hegaztiei ura ematea.

Bestalde, aldeko arrisku-analisia jaso ondoren eta baimenean jasotzen den baldintza-agiria derrigorrez bete ondoren, **agintari eskudunek baimendu** beharko dituzte honako jarduera hauek:

- Eskortako edo itxitako **hegaztiak biltzea** (abere-lehiaketak, erakusketak eta kultura-ospakizunak).
- Eskortako hegaztiak **askatzea birpopulatzeko**.

Gainera, foru-aldundietako animalien osasun-arloko zerbitzu eskudunek:

- Hegazti-**errolak egunera** ditzakete, **autokontsumokoak barne**.
- **Osasun-ikuskapenak** egin ditzakete, zaintza aktiboko sistemaren barruan beharrezkoa bada.

Bestalde, hegaztien **hilotzak** (bereziki espezie urtarrenak badira) aurkitzen dituen pertsona orori **lehenbailehen foru-aldundiei jakinarazteko** eskatzen zaio, beharrezko neurriak har ditzaten.

Hortaz, eta aldez aurretik agintari eskudunei eta hegazti-sektoreari galdetu ondoren, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Agindu hau argitaratu du. Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta **hurrengo egunean indarrean jarriko da, hau da, 2022ko abenduaren 17an**.

IAAPri buruzko informazio gehiago: